El tratamiento de datos de carácter personal relacionado con la gestión de la ayuda económica para víctimas de violencia sexual se someterá a lo establecido en el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 27 de abril de 2016, relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos (Reglamento general de protección de datos), de la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales, y a lo previsto en la Disposición Adicional única del Real Decreto 664/2024, de 9 de julio.

**DISPOSICIÓN TRANSITORIA. - Ámbito de aplicación.**

La regulación del presente decreto se aplicará a las solicitudes que se refieran a situaciones de violencia sexual que se produzcan a partir de la entrada en vigor del Real Decreto 664/2024, de 9 de julio, y que cumplan los requisitos de acceso previstos en la presente norma.

**DISPOSICIÓN FINAL PRIMERA. – Desarrollo**

Se faculta a la persona titular del departamento competente en materia de servicios sociales para aprobar cuantas disposiciones sean necesarias para el desarrollo y ejecución del presente decreto.

**DISPOSICIÓN FINAL SEGUNDA. – Publicidad de la dotación presupuestaria.**

Al objeto de dar cumplimiento al principio de publicidad, se indica que en el ejercicio 2025 se destina a la financiación de la ayuda prevista en el presente decreto un importe de 1.800.000 euros.

**DISPOSICIÓN FINAL TERCERA. - Normativa aplicable.**

En lo no previsto en este decreto se estará a lo dispuesto en la Ley Orgánica 10/2022, de 6 de septiembre, el Real Decreto 664/2024, de 9 de julio que lo desarrolla, la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones públicas y demás normativa que resulte de aplicación.

**DISPOSICIÓN FINAL CUARTA. – Entrada en vigor.**

El presente decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX

El Lehendakari,

IMANOL PRADALES GIL

La consejera de Bienestar, Juventud y  
Reto Demográfico

NEREA MELGOSA VEGA

**DEKRETUA, XXXaren XX (e) koa, sexu-indarkeriaren biktamei dirulaguntza emateko eta ordaintzeko prozedura ezartzen duena, Sexu-askatasunaren berme integralari buruzko irailaren 6ko 10/2022 Lege Organikoaren 41. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.**

Sexu-askatasunaren berme integralari buruzko irailaren 6ko 10/2022 Lege Organikoak, 41. artikuluan, behar adina baliabide ekonomikorik ez duten sexu-indarkeriaren biktimentzako laguntza ekonomikoak aurreikusten ditu, eta haien zenbatekoa familia-kargen eta -zirkunstantzien arabera zehazten da.

Laguntza horiek lege organiko horren IV. tituluko II. kapituluan sexu-indarkeriaren biktimentzat jasotako eskubideen barruan sartzen dira. Eskubide horien helburu nagusia biktimen autonomia ekonomikoa eta susperraldi integrala erraztea da.

Lege-aurreikuspen hori garatzeko, uztailaren 9ko 664/2024 Errege Dekretua eman da, sexu-indarkeriaren biktimentzako dirulaguntzak arautzen dituena, eta abenduaren 2ko 1452/2005 Errege Dekretua aldatzen duena, genero-indarkeriaren aurkako babes integraleko neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren 27. artikuluan ezarritako dirulaguntza arautzen duena (aurrerantzean, uztailaren 9ko 664/2024 Errege Dekretua).

Araudi horrek, besteak beste, honako hauek arautzen ditu: laguntzaren onuradun izateko baldintzak, «sexu-indarkeriaren biktima», «familia-unitatearen mendeko biktima» eta «ardurapeko pertsonak» definizioak, biktima-izaera egiazatzeko modua, eskatze epea, laguntzaren zenbatekoa eta luzapena, laguntzak izapidetzeko eta emateko eta, hala badagokio, laguntzak itzultzeko organo eskudunak. Era berean, laguntza berriro eskuratzeko aukera xedatzen du, baldin eta laguntzaren biktima den biktimak berriz ere sexu-indarkeria egiaztatzen badu eta horretarako baldintzak betetzen baditu.

Zehazki, 7. artikuluan aurreikusten du gizarte-laguntzaren arloan eskumena duten administrazioek izapidetuko dutela laguntza-eskaera eta, hala badagokio, luzapena, beren prozedura-arauekin bat etorri, Administracio Publikoen Administrazio Procedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritakoaren esparruan. Administrazio horiek zaindu eta bermatuko dute prozeduraren fase guziak ahalik eta azkarren eta modu simpleean egiten direla.

Hori guzia dela eta, beharrezko da Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoa Sailak dekretu honen bidez laguntza horiek emateko eta ordaintzeko prozedura arautzea, Gizarte Garapenaren, Gizarte Ongizatearen eta Gizarte Zerbitzuen arloko eginkizunak baititu esleitura, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuaren 15. artikuluaren d letran ezarritakoaren arabera.

Ondorioz, Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoko sailburuaren proposamenez, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoarekin bat etorri, eta Gobernu Kontseiluak xxx (e) ko xxxxxxxaren xx (e) (a) n egindako bilkuran eztabaidatu eta onartu ondoren, hauxe

## XEDATZEN DUT:

### 1 artikulua. – Xedea eta izaera.

1. – Dekretu honen xedea da Sexu Askatasuna Bermatzeari buruzko irailaren 6ko 10/2022 Legearen 41. artikuluan aurrekusitako eta uztailaren 9ko 664/2024 Errege Dekretuaren bidez garatutako lagunza ekonomikoa emateko eta ordaintzeko prozedura arautzea. Lagunza hori sexu-indarkeriaren biktima izan eta errenta nahikorik ez dutenei zuzenduta dago.

2.- Lagunza honek ez du dirulagunza izaera, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 2.4 i) artikuluaren eta Dirulaguntzen Araubidea arautzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 3.3.i) artikuluaren arabera.

### 2. artikulua. – Definizioak

Dekretu honen ondorioetarako, uztailaren 9ko 664/2024 Errege Dekretuaren 2. artikuluan xedatutakoaren arabera, definizio hauek hartuko dira kontuan:

a) Sexu-indarkeriaren biktima: irailaren 6ko 10/2022 Lege Organikoaren 3. artikuluaren zentzuan sexu-indarkeriaren biktima izan diren emakumeak eta haurrek, Spainian, nazionalitatea eta administrazio-egoera edozein direla ere, edo atzerrian, betiere Espainiako nazionalitatea badute.

b) Ekonomikoki familia-unitatearen mendekoa den biktima: biktima adingabe emantzipatugabeak familia-unitatearen ekonomikoki mendekotzat joko dira.

Biktima adingabea edo adinez nagusia ekonomikoki familia-unitatearen mendekoa dela joko da, baldin eta, lagunza eskatzeko unean, biktima familia-unitatearekin bizi bada, osorik edo partzialki haren kontura bizi bada, eta, urteko zenbaketan, lanbide arteko gutxieneko soldata baino errenta edo diru-sarrera handiagoak jasotzen ez baditu, aparteko bi ordainsarien zati proportzionala kenduta.

Kontrako frogarik ez badago, elkarrekin bizi direla ulertuko da, baldin eta sexu-indarkeriaren biktima aseguratua dela aitortzen duen agirian senideei osasun-asistentzia publikoaren onuradun izaera aitortzen bazaie.

c) Ardurapeko pertsona: onuradunaren kargura dagoen pertsonatzat hartuko da odolkidetasunezko edo ezkontzazko ahaidea, eskaera egiteko unean haren kargura bizi dena, baldin eta senide horrek ez badu jasotzen, urteko zenbaketan, lanbide arteko gutxieneko soldata baino errenta edo diru-sarrera handiagoak, aparteko bi ordainsarien zati proportzionala kenduta.

Ardurapeko pertsona semea edo alaba bada, kontuan hartu ahal izango da lagunza eskatu eta hurrengo hirurehun egunen barruan jaiotzen badira. Kasu horretan, jasotako laguntzaren zenbatekoa berrikusi beharko da, 6. artikuluan aurrekusitakoaren arabera, eskaeraren egunean jaio izan balitz egokituko litzaiokeen kopurura egokitzeo.

Kontrako frogarik ez badago, elkarrekin bizi direla ulertuko da, baldin eta sexu-indarkeriaren biktima aseguratua dela aitortzen duen agirian senideei osasun-asistentzia publikoaren onuradun izaera aitortzen bazaie.

Seme-alaben kasuan, ez da beharrezko izango bizikidetza, hitzarmen edo ebaZen judizial baten ondorioz mantenu-betebeharra dagoenean.

3. artikulua.- Onuradunak.

1.- Laguntza jaso ahal izango dute sexu-indarkeriaren biktimek, baldin eta, eskabidea egiteko unean, honako baldintza hauek betetzen baditzte:

a) Euskal Autonomia Erkidegoko (aurrerantzean, EAE) edozein udalerritan erroldatuta egotea.

b) Hileko errenta lanbide arteko gutxieneko soldata baino handiagoa ez izatea, aparteko bi ordainsarien zati proportzionala kenduta.

Biktima adingabeak edo ekonomikoki familia-unitatearen mendekoak badira, familia-unitatearen hileko errenten zenbatekoa ezin izango da lanbide arteko gutxieneko soldataren bikoitza baino handiagoa izan, aparteko bi ordainsarien zati proportzionala kenduta, edo lanbide arteko gutxieneko soldataren halako hiru baino handiagoa, aparteko bi ordainsarien zati proportzionala kenduta, lau kidek edo gehiagok osatutako familien kasuan, edo familia ugariaren izaera aitortuta duten familien kasuan, indarrean dagoen araudiaren arabera.

Dekretu honen 5. artikuluan aurreikusitakoaren arabera zehaztuko dira errentak.

c) Sexu-indarkeriaren biktima dela egiaztatzea, hurrengo artikuluan ezarritakoaren arabera.

d) Ez Euskal Autonomia Erkidegoan, ez Estatuko beste ezein erkidegotan, aurretik laguntza horren onuradun ez izatea, artikulu honetako 3. atalean aurreikusitako inguruabarrak gertatzen direnean izan ezik.

2.- Laguntza-eskabidea aurkezten den unean bete beharko dira aurreko paragrafoan eskatutako baldintzak, eta eutsi egin beharko zaio laguntza ematea edo, hala badagokio, 12. artikuluan aurreikusitako luzapena ebatzi behar denean.

3.-Sexu-indarkeriaren biktima bat laguntzaren onuradun bada eta berriz ere sexu-indarkeria jasaten badu, eta egoera hori berriz ere egiaztatzen bada hurrengo artikuluan ezarritakoaren arabera, laguntza eskuratu ahal izango du, betiere horretarako ezarritako baldintzak betetzen baditu.

4. artikulua. – Sexu-indarkeriaren biktima-izaera egiaztatzea.

1.- Dekretu honetan araututako laguntza ekonomikoa eskuratzeko, sexu-indarkeriaren biktima dela egiaztu ahal izango da, irailaren 6ko 10/2022 Lege Organikoaren 3.1 artikuluan aurreikusitako sexu-indarkeriaren edozein agerpenengatiko kondena-epai baten bidez, babes-agindu baten bidez edo biktimaren aldeko kautela-neurri bat erabakitzuen duen beste edozein ebaZen judizialen bidez, edo, bestela, Fiskaltzaren txostenaren bidez, non adieraziko baita demandatzalea sexu-indarkeriaren biktima delako zantzuak daudela.

Era berean, sexu-indarkeriako egoerak egiaztatutzat joko dira gizarte-zerbitzuen, berdintasunean eta genero-indarkeriaren aurka espezializatutako zerbitzuen, administrazio publiko eskudunaren sexu-indarkeriaren biktimentzako harrera-zerbitzuen edo Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskaritzaren txostenaren bidez, ikuskapen-jarduketaren xede diren kasuetan, edo lan-arloko jurisdikzio-ordenak emandako epaiaren bidez.

2.- Sexu-esplotaziorako salerosketaren biktima izatearen ondoriozko sexu-indarkeriaren biktimen kasuan, nahikoa izango da biktima horiei arreta integrala emateaz arduratzen diren zerbitzu publikoek edo arlo horretan eskumena duten administrazio publikoek behar bezala aitortutako gizarte-erakundeek emandako txosten baten bidez egiaztatzea, martxoaren 29ko 6/2022 Errege Lege Dekretuaren 47. artikuluan ezarritakoaren arabera (6/2022 Errege Lege Dekretua, martxoaren 29koa, Ukrainako gerraren ondorio ekonomiko eta sozialei erantzuteko plan nazionalaren esparruan premiazko neurriak hartzen dituena).

3.- Biktima adingabeen kasuan, sexu-indarkeriaren egoera egiaztatutzat jo ahal izango da, ondorio beretarako, Fiskaltzari edo organo judizialari jakinarazteko osasun-dokumentu ofizialen bidez.

##### 5. artikula. – Errentak zehaztea.

1.- 3. artikuluan aurreikusitako mugak gainditzen dituen errentarik ez dagoela zehazteko, errenta edo diru-sarrera konputagarritzat hartuko dira biktimak lanaren, kapital higigarriaren edo higiezinaren ondorioz dituen edo izan ditzakeen ondasun, eskubide edo etekin guztiak, ondarearen, jarduera ekonomikoen eta prestazio-izaerako gehikuntzak barne, honako hauek izan ezik:

- a) Arduapeko seme edo alaba bakoitzeko Gizarte Segurantzaren diru-esleipenak, seme-alaba hori desgaitasuna duen pertsona izan ala ez.
- b) Arduapeko seme-alaba adingabeengatik zuzenean ordaintzeagatiko kenkari fiskalak.
- c) Mugikortasun-sorospena eta garraio-gastuengatiko konpentsazioa, azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bateginaren 8.1.b) eta 31. artikuluetan aurreikusitakoa.
- d) Mantenu-pentsioak, konpentsazio-pentsioak, Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legeitik eratorritako ekonomikoak, bai eta alokairu-laguntzak edo lan-ekintzaileta sustatzeko laguntzak ere.
- e) Desgaitasuna duten pertsonei okupazio-zentroetan emandako sariak, egindako gastua konpentsatzeko dirulaguntzak, laguntzak edo bekak, bai eta autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen babesean emandako prestazio ekonomikoak eta gauzazkoak ere.
- f) Sexu-indarkeriaren biktima izateagatik ematen diren bekak, sariak edo antzeko aitorpenak.
- g) Estatuko, Europar Batasuneko edo nazioarteko edozein administraziok edo erakunde publiko zein pribatuk helburu bererako emandako beste edozein dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide.

Lanetik ez datozen eta hilabetetik gorako aldizkakotasunarekin jasotzen diren errentak ondorio horietarako zenbatuko dira, eta hilero hainbanatuko dira. Errentari ondarearen merkatuko balioaren ehuneko bat gehituko zaio.

Ondorio horietarako, ohiko etxebizitza eta errentak konputatu zaizkien ondasunak ondaretik deskontatuko dira. Ateratzen den zenbatekoari indarrean dagoen diruaren legezko interesa

aplikatuko zaio ehuneko 50ean, eta lortzen den batura artikulu honen arabera zehaztutako errentari gehituko zaio.

2.- Zehazki, kontuan hartuko dira eskabidea egiteko unean biktima jasotzen zituen laguntzak, abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren 27. artikuluaren arabera edo irailaren 6ko 10/2022 Lege Organikoaren 41. artikuluaren arabera, salbu eta Aginduaren 12. artikulan araututako laguntzaren luzapena eskatzea.

3.- Errenta-gabezia zehazteko, laguntza eskatzen duen biktima dituen errentak edo diru-sarrerak bakarrik hartuko dira kontuan, eta ondorio horietarako ez dira zenbatuko harekin bizi diren familia-unitateko beste kide batzuen errentak edo diru-sarrerak, honako kasu hauetan izan ezik:

a) Biktima bere ardurapean pertsonak baditu. Kasu horretan, errenta-gabeziaren baldintza betetzen duela ulertuko da, baldin eta familia-unitate osoaren hileko errentak, hura osatzen duten kideen kopuruaz zatituta, ez badu gainditzen lanbide arteko gutxieneko soldatu, aparteko bi ordainsarien zati proportzionala kenduta.

b) Biktima adingabea edo ekonomikoki familia-unitatearen mendekoa denean; kasu horretan, dekretu honen 3.1.b) artikulan ezarritakoa aplikatuko da.

4.- Inola ere ez dira kontuan hartuko ezkontidearen edo biktimarekin antzeko afektibitate-harremana duenaren errentak, ezta gurasoarenak ere, sexu-indarkeriaren erantzule badira.

#### 6. artikula.- Laguntzaren zenbatekoa.

1.- Oro har, laguntza ekonomikoaren zenbatekooa langabezia-sorospeneko sei hilabeteren baliokidea izango da.

2. Biktima pertsonak baditu ardurapean, laguntzaren zenbatekooa honen baliokidea izango da:

a) Langabeziagatiko hamabi hilabeteko sorospena, biktimak senide bat edo harreran hartutako adingabe bat bere kargura duenean.

b) Langabezia-sorospeneko hemezortzi hilabete, biktimak bi senide edo gehiago edo hartutako adingabeak baditu bere kargura, edo senide bat eta harreran hartutako adingabea baditu.

3. Biktimak ehuneko 33ko edo gehiagoko desgaitasun-maila ofizialki aitortua duenean, laguntzaren zenbatekooa honen baliokidea izango da:

a) Langabeziagatiko hamabi hilabeteko sorospena, biktimak ez badu langilerik ardurapean.

b) Langabeziagatiko hemezortzi hilabeteko sorospena, biktimak pertsona bat bere ardurapean duenean.

c) Langabezia-sorospeneko hogeita lau hilabete, biktimak bi pertsona edo gehiago baditu bere kargura.

4. Sexu-indarkeriaren biktimak ehuneko 33ko desgaitasun-maila edo handiagoa duten pertsonak baditu ardurapean, laguntzaren zenbatekooa honen baliokidea izango da:

a) Langabeziagatiko hemezortzi hilabeteko sorospena, biktimak pertsona bat bere ardurapean duenean.

b) Langabezia-sorospeneko hogeita lau hilabete, biktima bi pertsona edo gehiago baditu bere kargura.

5. Sexu-indarkeriaren biktima bere kargura bizi den pertsonak ehuneko 65eko desgaitasun-maila edo handiagoa badu ofizialki, laguntzaren zenbatekoa langabezia-sorospeneko hogeita lau hilabeteren baliokidea izango da.

6. Sexu-indarkeriaren biktima eta harekin bizi den pertsonak ehuneko 33ko desgaitasun-maila edo handiagoa badute ofizialki aitortuta, laguntzaren zenbatekoa langabezia-sorospeneko hogeita lau hilabeteren baliokidea izango da.

7. artikula.- Eskabideak egiteko epea.

1. Laguntza-eskaera bost urteko epean egin beharko da, biktimaren alde emandako azken titulutik zenbatzen hasita.

Epe hori zenbatzen hasiko da kondena-epaia, babes-agindua edo biktimaren aldeko kautela-neurri bat erabakitzent duen beste edozein ebaZen judicial jakinarazten den egunaren biharamunetik, edo biktima dela 4. artikulan aurreikusitako beste bitartekoren baten bidez egiaztatzen denetik.

2.- Biktima adingabeen kasuan, egiaztapena adingabetasunean egin bada, baina aldi horretan laguntza eskatu ez bada, biktima adin-nagusitasuna lortu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da zenbatzen aurreko paragrafoan aipatutako epea.

8. artikula.- Eskatzeko prozedura

1.- Procedura alderdi batek eskatuta hasiko da, interesdunak berak edo haren ordezkariek aurkeztutako eskabidearen bidez.

Biktima adingabeen kasuan, beren kabuz laguntza eskatzeko legitimazioa izango dute emantzipatuta daudenean. Bestela, legezko ordezkarien bitartez eskatu ahal izango dute laguntza, betiere pertsona hori ez bada laguntza jasotzeko eskubidea ematen duen sexu-indarkeriaren erantzulea. Adingabeak aldi horretan jasandako indarkeriagatik laguntza eskatu ez badu, biktima bere kabuz eskatu ahal izango du adin-nagusitasunetik, aurreko artikulan adierazitako moduan.

2. – Laguntza ekonomikoaren eskabidea eta dokumentazioa modu elektronikoan aurkeztu ahal izango dira, edo aurrez aurre Eusko Jaurlaritzaren Herritarrentzako Zerbitzuaren bulegoetan (Zuzenean), edo Administrazio Publikoen Administrazio Procedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikulan aurreikusitako organoetan.

3. – Eskabidea izapidetzeko eta agiriak aurkezteko bide bat edo bestea erabiltzeak, hau da, aurrez aurreko edo elektronikoa erabiltzeak, ez du behartzen aurrerantzean ere prozedurako gainerako izapideak egiteko bide bera erabiltzera, eta edozein unetan alda daiteke aukeratutako bidea.

Eskabidearen osteko izapideak bide elektronikoz egin ahal izango dira, EAEko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko «Nire karpeta» atalaren bidez: <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>.

4.- Eskatzaileek nahi duten hizkuntza ofizialean aurkeztu ahal izango dute eskabidea eta harekin batera doan dokumentazioa. Halaber, eskabidearen ondoriozko jarduketetan, eta

procedura osoan, eskatzaileak hautatutako hizkuntza erabiliko da, Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 6.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

5.- Eskabideak aukera emango du eskatzaileak berariaz aurka egin diezaion lagunzia kudeatzen duen organoak dokumentazioaren zati bat lortzeari edo egiaztatzeari, hargatik eragotzi gabe administrazio publikoak esleituta dituen egiaztatze-, kontrol- eta ikuskatze-ahalmenak. Agiri horiek lortu ezin badira, arrazoia edozein dela ere, horiek lortzeko bideragarritasun teknikorik eza barne, eskatzaileak organo kudeatzaileak ematen dion epean aurkeztu beharko ditu.

6. - Laguntzaren informazio-fitxa helbide honetan egongo da eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/servicios/xxxx>

Bertan, eskabidea eta hura osatzeko jarraibideak egongo dira eskuragarri, bai eta hura eskuratzeko baldintzen egiaztagiriak ere.

#### 9. artikulua.- Dokumentazioa.

1.- Eskabidearekin batera, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

a) Nortasuna egiaztatzea Nortasun Agiri Nazionalaren, pasaportearen, Atzerritarren Identifikazio Zenbakieren, bizileku-baimenaren edo antzokoaren bidez, bai eta horien jabe izateko betebeharra duten bere ardurapeko pertsonen bidez ere.

b) Adingabe emantzipatuaren kasuan, ebazpen judzialaren edo erregistro zibilaren ziurtagiriaren bidez egiaztatuko da.

c) Sexu-indarkeriaren egoera egiaztatzen duen agiria, dekretu honen 4. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

d) Eskatzailea erroldatuta dagoela egiaztatzen duen udal-ziurtagiria, eta, hala badagokio, zer kolektibotan bizi den. Ziurtagiri horretan, etxebizitzan bizi diren pertsona guztien zerrenda eta erroldatze-data adierazi beharko dira, lagunza-eskabidea aurkeztu baino hilabete lehenago, gehienez ere.

e) Familia-unitatearen kargura dauden pertsonen edo ekonomikoki haren mende dauden biktimen kasuan, honako hauek aurkeztu beharko dira: erregistro individualaren kopia, familia-liburua, jaiotza-ziurtagiria edo antzokoak, edo, hala badagokio, zaintza eta jagoletza edo tutoretza egiaztatzen duen dokumentua, mantenu-betebeharra jasotzen duen hitzarmen arautzailearen edo ebazpen judzialaren kopia, edo adierazitako ahaidetasun-harremana egiaztatzen duen beste edozein dokumentu.

Senideek osasun-asistentzia publikoaren onuradun direla aitortuta dutenean, sexu-indarkeriaren biktima aseguratua dela aitortzen duen agiria.

f) Bikitimari edo haren ardurapeko pertsonei % 33ko edo gehiagoko desgaitasuna aitoru bazaie, erakunde publiko eskudunak emandako indarreko desgaitasun-mailaren egiaztagiria.

g) Eskatzailearen errentak zehazteko, bai eta haren kargura dauden pertsonenak ere, edo biktima adingabeak familia-unitatearen mende badaude, honako hauek aurkeztu beharko dira:

- Bikitaren eta, hala badagokio, bere kargura dauden pertsonen edo familia-unitateko

kideen Pertsona Fisikoaren Errentaren gaineko Zergaren azken aitorpena; halakorik ezean, dagokion foru-ogasunean aitorpena egiteko betebeharrik izan ez izanaren ziurtagiriaren kopia edo baliokidea.

- Foru-ogasunaren ziurtagiria edo baliokidea, eskatzaileak dituen ondasun higiezinak jasotzen dituena, eta, hala badagokio, ardurapean dituen pertsonena edo familia-unitateko kideena.
- Eskatzailearen eta haren kargura dauden pertsonen edo familia-unitatea osatzen duten pertsonen kontuen eta banku-tituluen egoerari buruzko banku-ziurtagiriak, laguntzaren eskaera aurkeztu aurreko azken 12 hilabeteen xehetasunekin, interesdunaren jabetzakoak edo beste pertsona batekin partekatutakoak izan.
- Eskatzailearen edo ardurapeko pertsonen hileko diru-sarrerak justifikatzen dituen beste edozein dokumentu.
- Hala badagokio, familia ugariaren izaera aitortzea.

2.- Gizarte-zerbitzuen arloan eskumena duen sailburuaren agindu baten bidez, betekizunak egiazatzeko dokumentazioa egokitu egingo da, berraztertea eragin dezaketen inguruabarretatik ondorioztatzen denera.

10. artikulua. – Eskabidean egindako akatsak zuzentzea eta dokumentazio osagarria aurkeztea.

1. – Eskabideak oso-osorik betetzen ez badira edo derrigor aurkeztu beharreko agiriekin aurkezten ez badira, eskatzaileari 10 egun balioduneko epea emango zaio eskabidea zuzentzeko edo nahitaezko agiriak aurkezteko. Hori egin ezean, eskabideari uko egin diola ulertuko da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikuluaren araberako ebazpena eman ondoren.

2. – Era berean, organo eskudunak prozeduraren edozein unetan eska diezaieke interesdunei beharrezko datu eta dokumentuak aurkezteko.

11. artikulua. – Kudeaketa, ebazpena eta errekurtoak.

1. – Gizarte-zerbitzuen arloan eskumena duen zuzendaritzari dagokio lagunza kudeatzea.

2. – Lagunza ematea edo ukatzea, eta, hala badagokio, luzapena, gizarte-zerbitzuen arloan eskumena duen zuzendarizaren berariazko ebazpen arrazoituaren bidez egingo da. Lagunza ekonomikoen eskaerak ordenan ebatziko dira, eskaera-espeditore horiek osatuta dauden dataren arabera. Ebazpen horrek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beraren aurka, gora jotzeko errekurtoa aurkez dakiote gizarte-zerbitzuen arloko sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpen jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, hala ezarrita baitago Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluetan.

3. – Laguntzak emateko ebazpena emateko eta jakinarazteko gehieneko epea 6 hilabetekoa izango da, eskaera gizarte-zerbitzuen arloan eskumena duen saileko Zerbitzu Zuzendaritzaren registroan sartzen den egunetik zenbatzen hasita. Epe hori igaro eta interesdunei berariazko ebazpenik jakinarazi ez bazaie, lagunza emateko eskaera administrazio-isiltasunez baietsitzat joko da.

4. – Jakinarazpena Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. eta 41. artikuluetan aurreikusitakoaren arabera egingo da, edo, hala badagokio, Herritarrei arreta osoa eta kanal anitzekoa emateko eta zerbitzu publikoak bitarteko elektronikoen bidez eskuratzeko ekainaren 20ko 91/2023 Dekretuaren 88., 89. eta hurrengo artikuluetan aurreikusitakoaren arabera.

5. – Laguntza-eskaera ukatzen bada baldintzaren bat ez betetzeagatik, berriro eskatu ahal izango da, baldin eta lehenengo ukapena eragin zuten inguruabarretan aldaketaren bat gertatzen bada.

#### 12. artikulua.- Laguntza luzatzea.

1.- Laguntza behin bakarrik luzatu ahal izango da, biktima onuradunak hala eskatzen badu, betiere laguntza eman zenetik gutxienez sei hilabete igaro badira eta laguntza emateko arrazoi izan ziren baldintzei eusten bazaie.

2.- Laguntzaren luzapena eskatzeko epea lehenengo emakidaren sei hilabeteko epea amaitu baino hilabete lehenagotik hiru hilabete igaro arte luzatuko da.

3.- Luzapen-eskaera dekretu honetan laguntza eskatzeko ezarritako prozeduraren arabera izapidetu, ebatzi eta ordainduko da.

4.- Laguntzaren luzapenaren zenbatekoa zehazteko, onuradunaren egoera pertsonalean eta familiarrean gerta daitezkeen aldaketak hartuko dira kontuan.

#### 13. artikulua. – Laguntza ordaintzea.

1. – Laguntza ordaindu ahal izateko, ezinbesteko da onuradunak alta emanda egotea ogasun eta finantza arloan eskumena duen sailaren Hirugarrenen Erregistroan.

Erregistratuta ez badago edo Hirugarrenen Erregistroan dauden banku-datuak aldatu nahi baditu, alta eman edo aldatu ahal izango du helbide hauetan:

– Aurrez aurre:

[https://www.euskadi.eus/contenidos/autorizacion/alta\\_terceros/es\\_7999/adjuntos/ALTA.pdf](https://www.euskadi.eus/contenidos/autorizacion/alta_terceros/es_7999/adjuntos/ALTA.pdf) helbidean ezarritako "Hirugarrenaren alta" eredu normalizatuaren araberako inprimakia.

– Bide elektronikotik: inprimakia, Hirugarrenen Alta Erregistroaren bidez. Hemen dago: [https://www.euskadi.eus/web01-s2oga/eu/contenidos/informacion/regtelter\\_infor/eu\\_rtt/index.shtml](https://www.euskadi.eus/web01-s2oga/eu/contenidos/informacion/regtelter_infor/eu_rtt/index.shtml)

2. – Onuradunak ordainketa bakarrean edo sei hilekotan jaso ahal izango du laguntzaren zenbatekoa. Laguntza bi modalitateetan ordaintzea bateragarria da laguntza behin baino gehiagotan jasotzearekin, 3.3 artikuluan aurreikusitako baldintzetan.

3.- Onuradunak bere titulartasunekoak den eta onuradunak adierazten duen banku-kontuan aukeratzen duen moduan ordainduko da laguntza.

#### 14. artikulua. – Itzulketa.

1. Jasotako zenbatekoak osorik itzuli beharko dira, baldin eta laguntza emateko eskatutako betekizunak bete gabe lortu bada, edo laguntza ematea eragotzi zuten egitateak edo datuak faltsutzuz edo ezkutatuz lortu bada, bai eta dekretu honetan araututakoarekin bateraezina den beste laguntza bat jasotzen ari bada ere.

2. Laguntzaren luzapena behar ez bezala lortu bada edo 6. artikuluan ezarritakoaren arabera dagokiona baino zenbateko handiagoa jaso bada, itzuli egin beharko da benetan jasotako zenbatekoaren eta jaso beharko zenaren arteko aldea.

**15. artikulua. – Dirua itzultzeko prozedura.**

Itzultzeko prozedura honako hau izango da:

- a) Gizarte-zerbitzuen arloan eskumena duen zuzendariak, ebaZen arrazoitu bidez, itzulketa-prozedura hastea erabakiko du, prozedura funtsatzeko arrazoia adierazita, eta 15 egun baliodeko epea emango du egokitzat jotzen dituen alegazioak egiteko.
- b) Alegazioak jaso edo alegaziorik egin gabe epea igaro ondoren, prozedura amaitutzat joko da, gizarte-zerbitzuen arloan eskumena duen zuzendariaren ebaZen bidez.
- c) Itzultzeko prozeduraren ebaZen jakinarazteko gehieneko epea 6 hilabetekoa izango da.
- d) EbaZenak adierazten badu eskatutako baldintzak ez direla bete edo ez direla bete, laguntza jasotzeko eskubidea galdu dela adieraziko du, eta, hala badagokio, ebaZen jakinarazten denetik gehienez 2 hilabeteko epean dagozkion diru-kopuruak Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzuli beharra. Epe hori borondatezko alditzat joko da.
- e) Borondatezko aldean itzulketarik egiten ez bada, Eusko Jaurlaritzan ogasun- eta finantza-arloko eskumena duen saileko Ogasun Sailburuordetza jakinaraziko zaio, premiamendubideari ekin diezaion, indarrean dagoen legezko araudian xedatutakoari jarraituz.

**16. artikulua. – Beste laguntza eta prestazio batzuekiko bateragarritasuna.**

1.- Laguntza hauek bateragarriak izango dira honako hauekin:  
a) Epai judicial bidez erabakitako kalte-ordinak, edo, bestela, Indarkeriazko eta sexu-askatasunaren aurkako delituen biktimak laguntzeko eta sorosteko abenduaren 11ko 35/1995 Legean aurreikusitako edozein laguntzarekin adostutakoak.

b) Azaroaren 24ko 1369/2006 Errege Dekretuan aurreikusitako laguntzak (1369/2006 Errege Dekretua, azaroaren 24koa, beharrizan ekonomiko bereziak eta lana aurkitzeko zaitasunak dituzten langabeentzako laneratzeko errenta aktiboaren programa arautzen duena), bai eta Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginaren berrogeita hemezortzigarren xedapen gehigarrian aurreikusitakoak ere (testu bategin hori urriaren 20ko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen, maiatzaren 21eko 2/2024 Errege Lege Dekretuak emandako idazketan; errege lege-dekretu horren bidez, langabezia-babesaren maila sinplifikatzeko eta hobetzeko presako neurriak hartu ziren, eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2019ko ekainaren 20ko 2019/1158 (EB) Zuzentarauden transposizioa osatu zen; zuzentara hori gurasoen eta zaintzaileen familialibitzia eta bizitza profesionala uztartzeari buruzkoa da, eta 2010eko zuzentaraua indargabetzen du).

c) Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrera ezartzen duen abenduaren 20ko 19/2021 Legean ezarritako laguntzak, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren abenduaren 22ko 14/2022 Legean aurreikusitakoak, eta autonomia-erkidegoek eta Ceuta eta Melilla hiriek arlo horretan ezartzen dituzten beste laguntza batzuk.

d) Gizarte Segurantzako modalitate ez-kontributiboko baliaezintasun- eta erretiro-pentsioak.

2.- Sexu-indarkeria ezkontide denak edo izan denak edo antzeko afektibilitate-harremanen bidez biktimarekin lotuta dagoenak edo egon denak egin duenean, elkarrekin bizi ez arren, biktimak aukeratu egin beharko du errege-dekretu honetan aurreikusitako laguntzaren edo abenduaren 2ko 1452/2005 Errege Dekretuaren laguntzaren artean.

#### 17. artikulua.- Baliabide ekonomikoak.

1. – Gizarte-zerbitzuen arloan eskumena duen sailburuak, urtero, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokoretan xede horretarako kontsignatuta agertzen diren zenbatekoak bideratuko ditu dekretu honetan aurreikusitako laguntza finantzatzeko, edo, indarrean dagoen legeriaren arabera aurrekontu-aldaketak onartzen badira, laguntza hori eguneratzetik ateratzen dena.

2. – Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko den gizarte-zerbitzuen arloko zuzendaritza eskudunaren titulararen ebazenaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokoretan dekretu honetan aurreikusitako laguntzearako esleitutako urteko zuzkidura jakinaraziko da.

#### XEDAPEN GEHIGARRIA LEHENENGOA.- Zuzeneko ekintza.

Dekretu honetan araututako dirulaguntzen kudeaketa, ebazena eta ordainketa zuzeneko ekintzatzat joko da, Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta bertako Lurralde Historikoetako Foruzko Jardute-Erakundeen arteko harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 7.c.1 eta 2 artikulan xedatutakoaren ondorioetarako, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 39. artikulan xedatutakoari dagokionez.

#### XEDAPEN GEHIGARRIA.- Datu pertsonalen tratamendua.

Sexu-indarkeriaren biktimentzako laguntza ekonomikoaren kudeaketarekin lotutako datu pertsonalen tratamendua honako hauetan ezarritakoa bete beharko du: 2016/679 (EB) Erregelamendua, 2016ko apirilaren 27ko, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, datu pertsonalen tratamendua eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra); 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5eko, Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko; eta uztailaren 9ko 664/2024 Errege Dekretuaren xedapen gehigarri bakarra.

#### XEDAPEN IRAGONKORRA.- Aplikazio-eremua.

Dekretu hau uztailaren 9ko 664/2024 Errege Dekretua indarrean jarri ondoren gertatzen diren sexu-indarkeriako egoerei dagozkien eskaerei aplikatuko zaie, baldin eta arau honetan aurreikusitako baldintzak betetzen baditzte.

#### AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA. – Garapena.

Gizarte-zerbitzuen arloan eskumena duen saileko titularrari ahalmena ematen zaio dekretu hau garatzeko eta betearazteko beharrezkoak diren xedapen guztiak onartzeko.

**AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA.** – Aurrekontu-zuzkiduraren publizitatea.

Publikotasun-printzipioa betetzeko, adierazten da 2025. urtean 1.800.000 euro bideratuko direla dekretu honetan aurreikusitako lagunza finantzatzeko.

**AZKEN XEDAPENETAKO HIRUGARRENA.** – Aplikatu beharreko araudia.

Dekretu honetan aurreikusita ez dagoenerako, honako hauek hartuko dira kontuan: irailaren 6ko 10/2022 Lege Organikoa; hora garatzen duen uztailaren 9ko 664/2024 Errege Dekretua; Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea, eta aplikatzeko den gainerako araudia.

**AZKEN XEDAPENETAKO LAUGARRENA.** – Indarrean jartzea.  
dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, a XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX

Lehendakaria,

**IMANOL PRADALES GIL**

Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren sailburua,  
**NEREA MELGOSA VEGA.**